


**URTARRILAREN 5EAN
ERREGE MAGOAK AIETEKO
JAUREGIRA HELDUKO DIRA
10:30EAN
ETA ARRATSALDEZ KABALGATA PIO
XII.ERAINO LUZATUKO DUTE**



Aurten, Ekialdeko Errege Magoek aurreikusi dute **urtarrilaren 5ean goizez Aieteko parkera** hurbiltzen diren donostiar haurrak agurtuko dituztela. Ekialdeko Errege horiek aurreikusi dute horko jauregian pasako dutela gaua, eta goiz-goizetik irtengo direla gure hiriko askotariko auzoetara. **10:30ean**, Meltxor, Gaspar eta Baltasar parkera hurbiltzen diren pertsona guztiak agurtuko dituzte. Donostiar haurrekin duten lehen harreman hori hasiera besterik ez da izango ilusioz betetako egun luze horretan, eta egunean **hiriko hainbat auzo bisitatuko dituzte auto klasiko batean**. Donostiako lehen agerpen horretan, Ekialdeko Errege Magoek segizio bat izango dute laguntzaile, errege postariak eta Joselontxo's txarangak osatua.

Errege segizioak egun hain berezi honetan egingo duen **ibilbidea** hauxe izango da (**ordutegia gutxi gorabeherakoa** da):

- 11:05 Loiolako Erriberak – Maria Zambrano plaza
- 11:40 Txomin – Gregorio Abartzuza plazatxoa
- 12:15 Altza – Harria parkea
- 13:10 Intxaurrondo –Sagastieder plaza
- 13:25 Antigua – Simona Lajust
- 14:00 Alderdi Eder – Udaletxeko terraza



Errege Magoek puntu horietan pausak egingo dituzte, eta Errege Postariak hurbiltzen zaizkien haur guztien **eskutitzak jasoko dituzte beren zorro handietan**. Ibilbidean, Ekialdeko Magoek Donostiako auzoetako ibilaldian aurkitzen dituzten pertsonak agurtuko dituzte beren ibilgailutik.

Gero, hiriko udaletxera heldu ondoren, Errege Mago horiek udal ordezkariak agurtuko dituzte eta, atsedean labor baten ondoren, **15:30ean, udaletxeko terrazan ohiko harrera/eskutitz-bilketa** egingo dute aire zabalean. Erregeek, izan ere, han jarriko dute haima (kanpadenda), basamortuko beren bidaian gauez erabili ohi dutena.

Aurten, harrerak beste urte batzuetan baino 30 minutu luzeago iraungo du, 18:00 arte, Errege Magoak agurtu nahi dituzten neska-mutil guztiei kasu egiteko. Izan ere, aurten, **ilara bakarra egingo da** eta, hartara, bertaratzen diren pertsona guztiek argazkia hiru Ekialdeko Magoekin aterako dute.

17:40tik aurrera, itxi egingo da udaletxeko terraza eta, beste urte batzuetan bezala, inor merezitako oparirik gabe geratu ez dadin, errege pajeek harrerara joan ezin izan direnen eskutitzak jasoko dituzte, eta Kabalgata hasi baino lehen emango dizkiete.

Aurtengo Kabalgataren hasiera 30 minutu atzeratuko da: **18:30ean** abiatuko da. Hiri erdialdeko kaleetan barrena ibiliko da, eta ibilbidea **Pio XII.aren plazaraino luzatuko da**; bertatik, itzulbidea egingo du Prim kalean zehar, berriz Bulebarrera heltzeko. Bada, hartara, ibilbidea 1 km luzatu da, herritarrak ikuskizunera eroso bertaratu daitezten, eta Errege Magoak ikustera joaten direnei espazio gehiago emateko.

#DONOSTIA
#SAN SEBASTIÁN **FESTAK**

DK donostiakultura



HASIERA ORDUA
HORA INICIO
18:30

AMAIERA ORDUA
HORA FINALIZACION
20:00

IBILBIDEA
RECORRIDO

*Boulevard
Hernani
Askatasunaren Hiribidea
Urbietta
Ehunurteurrenaren plaza
Anso Jakituna
Pio XII
Antso Jakituna
Araba parkea
Prim
Bergara
Idiakez
Gipuzkoa plaza
Legazpi
Boulevard*



Errege Magoak

KABALGATAREN IBILBIDEA
RECORRIDO CABALGATA
urtarrilak 5 enero
18:30

2022



Aurtengo Kabalgataren buruan, Errege Magoak joango dira karroza batean eta, bertan, haur donostiarrek eskutizetan eskatu dizkieten opari batzuk eramango dituzte erakusgarri. Orain arte egin ohi den bezala, errege pajeak eta postariak eramango dituzte laguntzeko, baita trikitilari eta txarangak ere. Zitara ez dira faltako ere buruhandiak, Ekialdeko Magoei lagundu nahi izan baitiete, desfilean haiekin bat eginez. Gainera, hainbat ikuskizun ibiltari egingo dira bidean.

Aurten, ohikoa baino % 20 parte-hartzaile gutxiago ibiliko dira gutxi gorabehera eta, beraz, 443 paje eta jokalari ibiliko dira desfilean (normalean, parte-hartzaileak 520-550 izaten dira) eta, azken urteotan lehendabiziko aldiz, ez dugu desfile amaieran gure suhiltzaileen eskaladun kamioirik izango. Izan ere, Errege Magoek opari piloa ekarri dute Donostiara eta, ondorioz, suhiltzaileek ezin izango dute desfilean parte hartu, Erregeen gaueko opari banaketaren logistika prestatu behar dutelako.

Erregeek hiri erdialdera egingo duten Kabalgatarako, trafikoa moztu eta aldatu egingo da hainbat puntutan. Gainera, aldaketak izango dira ere autobus lineen geralekuetan.

Kabalgata **20:15 inguru amaituko da.**

IRISGARRITASUNA

Mugikortasun murriztua duten pertsonen Ijentea kaletik sartzea erraztuko zaie eta, hartara, Errege Magoak agurtzera ere hurbildu ahal izango dira udaletxeko terrazara. Gainera, **gune erreserbatuak** jarriko dira hala **Aiete Jauregian** nola **Hernani kalean, Antso Jakitunaren hiribidean eta Gipuzkoa Plazan** Kabalgatarako.

ERREGE MAGOETAKO COVID PROTOKOLOA 2022

AUZOETAKO BISITAK

- Ekialdeko Errege Magoen bisitetan parte hartzen duten pertsona guztiek antolakuntzak emango dien **maskara eramango dute jantzita uneoro**. Maskarak **aho-sudurrak estali behar ditu** uneoro.
- Bisitek irauten duten bitartean, **nahitaezko pertsona arteko distantzia zainduko da** (1,5 m pertsonen artean), hala zutabeen nola errenkaden artean.
- Bisitetako **pertsonekin harreman albait gutxiena** izango da: Errege Magoek ez dituzte haurrak besoetan hartuko, haurrak ez zaizkie hurbilduko, ez dira besarkadak emango eta abar. Harreman bakarra haurren eskutitzak jasotzea izan ahalko da: errege postariak eramango dituzten zorroetan sartu ahal izango dituzte, nahi badute.

ESKUTITZAK EMATEA

- Eskutitzak aire zabalean emango dira, **udaletxeko terrazan**.
- **Ilara bakarra** egingo da Alderdi Ederren Errege Magoei eskutitzak eman ahal izateko. Ilaran dauden pertsona guztiek **maskara behar bezala jantzita** eraman behar dute. Jatorri desberdinetako taldeen arteko **distantzia** zainduko da (1,5 m).
- **Errege Magoek eskularruak eta maskara bana eramango dituzte** uneoro.
- Errege Magoen hurbileko puntu bat ezarriko da bertan argazkiak ateratzeko, ezarritako pertsona arteko distantzia errespetatuz (1,5 m). Eskutitzak ematera doazen haurrak puntu horretaraino hurbildu ahal izango dira Errege Magoak agurtu eta haiekin hitz egiteko, baina **ezingo dira haien magalean eseri, edo besarkatu**. Hurrengana hurbiltzen diren pertsona helduek ospakizuneko

antolakuntzak adierazten dien tokitik egin beharko dituzte argazkiak.

- Errege Magoen pajeek, maskara eta eskularruak eramango dituzte jarduera osoan, eta haiek adieraziko dute haurrak Erregeekin hitz egitera noiz pasa daitezkeen, baita zein bidetatik alde egin dezaketen harreratik ere.
- Eskutitzak ematera doazen pertsona guztiek **eskuak garbitu behar dituzte** udaletxeko terrazara sartzean. Antolakuntzak gel hidroalkoholikoa jarriko du harrerarako prestatu den espaziora sartzean eta hortik irteteen.

DESFILEA/KABALGATA

- Desfilean/Kabalgatan parte hartzen duten pertsona guztiek antolakuntzak emango dien **maskara** eramango dute jantzita **uneoro**. Maskarak aho-sudurrak estali behar ditu uneoro.
- Desfileak/Kabalgatak irauten duen bitartean, **nahitaezko pertsona arteko distantzia** zainduko da (1,5 m pertsonen artean), hala zutabeen nola errenkaden artean.
- Desfilean/Kabalgatan **ez da gozokirik botako**. Gainera, eskatu nahi dugu ez dadila bota gozokirik balkoietatik.
- Desfileko/Kabalgatako pertsonekin harreman albait gutxiena izango da: Errege Magoek haurrak ez dituzte besoetan hartuko, haurrak ez dituzte karrozetara hurbilduko, ez dira besarkadak emango eta abar. Harreman bakarra eskutitz-bilketa izango da; errege postariak eta Errege Magoen laguntzaileek zorroetan sartuko dituzte eskutitzak.
- **Megafoniaz, mezuak** zabalduko dira bertaratuei desfileak iraun bitartean maskara erabiltzea eskatzeko. Mezuak ibilbide osoan zabalduko dira, desfilea baino lehen eta gero, edo une jakin batzuetan.